


Aginte Taula Integrala (ATI) erabiliz gero, errazagoa da portuko agintaritzaren helburu estrategikoak zehaztea, ezartzea eta beren jarraipena egitea.

- Portuko agintaritzari negozio-eredua garatzen eta helburu estrategikoak lortzen laguntzeko asmoz, Estatuko Portuen Erakunde Publikoak, portuko agintaritzaren laguntzaz, 2001. urteaz geroztik egiten ditu ahaleginak, Espainiako Portu Sisteman Aginte Taula Integrala (ATI) ezartzeko, kudeaketarako eta plangintzarako tresnak eta metodologiak abian jartzeko prozesuaren barruan dagoen aldetik.
- Alde horretatik, ATIrri esker, portuko agintaritzek errazago zehaztu, ezarri eta jarraitu ditzakete helburu estrategikoak, eta, aldi berean, SPTeren koordinazioa hobetzen da, portuko agintaritza guztientzat berdinak diren jarraipen-adierazleen bitartez.
- Horrela, **Portuko Agintaritzaren Plan Estrategikoa Aginte Taula Integralaren** bitartez garatu eta monitoreatzen da, eta, horri esker, Enpresa Plana zehaztu daiteke aldi berean. Izan ere, Plan Estrategikoko lerro handiak helburu estrategiko bihurtzeko aukera eskaintzen du (bai eta adierazleak eta xedeak ere), eta helburu estrategikoak lortzeko zehaztu beharreko helburu eragileak eta ekimenak ezartzen ditu.




ATI ezartzea portuko agintaritzen barne-kudeaketaren eta kudeaketa orokorraren mesederako da.

- Hona hemen portuko agintaritzetan ATI ezartzean lortutako onurak:
 - Plan Estrategikoaren hedapen- eta betearazpen-mailaren **jarraipen etengabea** egin daiteke.
 - Proposatutako estrategia kontuan hartuta, **baliabideak oreka eta koherentzia handiagoz esleitu daitezke**, eta proiektuak egitea lehenetsi daiteke.
 - Portuko Agintaritzako Zuzendaritzak **adierazle estrategiko giltzarriak** eduki ditzake, negozioaren bilakaera zenbait ikuspegi edo perspektibatatik adierazteko.
 - **Izan daitezkeen arazoak aurreikusi** daitezke eta proaktibotasunez jokatu daitezke helburu estrategikoak lortzeko orduan.
 - Pertsonen **jarduera eta estrategia** bateratu egin daitezke, helburu estrategikoak erakundeko taldeei eman ahal zaizkien helburu bihurtzean.
 - **Egunez eguneko lana** eta erakundearen **etorkizuneko ikuspegia lotu daitezke**.
 - Maila guztietan **estrategiaren berri emateko funtsezko** elementua da.
 - **Talde-lana sustatzen du**, azken helburu bateratuak lortzeko (giza baliabideen lerrokadura).

Aginte Taula Integrala (ATI) erabiliz gero, errazagoa da portuko agintaritzaren helburu estrategikoak zehaztea, ezartzea eta beren jarraipena egitea.

- **Portuko Agintaritzaren strategiaren ikuspegi orokorra** bermatzen du arlo eta sail guztietan, eta oso lagungarria da, arloen arteko jardukeraren inplikazioa ulertzeko orduan (zatiak barik, osotasuna hobetsi behar da; hau da, egokitasun globala, toki-egokitasunaren aldean).
- **Enpresa-planak erraztu eta euskarria ematen die.**
- Portuko agintaritza guztiek adostutako adierazle bateratuak edukitzean, Estatuko Portuen Erakundeak txostenak prestatu ditzake, modu agregatuan eman dezake emaitzen berri eta, **horri esker, portuko agintaritzen benchmarkinga sustatu daiteke.**

Aginte Taula Integrala (ATI) erabiliz gero, errazagoa da portuko agintaritzaren helburu estrategikoak zehaztea, ezartzea eta beren jarraipena egitea.



Mapa estrategikoan, helburu estrategikoak lerro estrategiko batekin eta perspektiba batekin daude lotuta.

- ❑ Mapa estrategikoan, Portuko Agintaritzaren helburu estrategikoak ezartzen dira, eta lerro estrategikoen (zutabeak) eta perspektiben (ilarak) matrizean agertzen dira antolatuta.
- ❑ ATIren eredu bateratuan (generikoa da SPTEko portuko agintaritza guztientzat), bost lerro estrategiko eta lau perspektiba zehazten dira.
- ❑ Honako hauexek dira perspektibak eta, mapa estrategikoan, horizontalean daude jarrita, behean daudenek gorago kokatutakoetan dutelako eragina:
 - **Ekonomikoa:** maila goreneko estrategia da, eta, bertan, lortu beharreko finantza-emitzen araberako helburuak zehazten dira.
 - **Bezeroak:** finantza-estrategia babesten du, zehaztutako finantza- edo balio-helburuak lortzeko asmoz, bezeroetan lortu behar diren emitzen helburuen bitartez.
 - **Prozesuak:** goragoko perspektiben helburuetan eragina duten jarduerak edo prozesu kritikoak adierazten ditu. Perspektiba inductorea da, eta portuko erakundeak helburu horiek erabili ahal izango ditu, goragoko perspektibetako helburuak lortzeko.
 - **Baliabideak:** gaur egungo eta etorkizuneko arrakasta bermatuko duten oinarrizko baliabideen inguruko helburu guztiak zehazten ditu (teknologikoak, pertsonak, antolamendukoak...), eta goragoko perspektibetako helburuak lortzeko aukera eskaintzen du.
- ❑ Mapa estrategikoaren barruan, helburu estrategikoak kasuan kasuko perspektibaren maila horizontal berean egongo dira kokatuta, eta haiekin lotutako lerro estrategikoaren kolorea edukiko dute. Helburu estrategikoen (edo helburu-taldeen) arteko harremana gezen bitartez adierazten da mapa estrategikoan.

Lerro estrategiko bakoitzean, zenbait jarduera-mota daude.

☐ Orientazio moduan, honako hauxe da lerro estrategiko bakoitzaren edukia:

➤ **HAZKUNDEA**

- ✓ Bezeroak
- ✓ Trafikoak
- ✓ Sarbideak/konektibotasuna
- ✓ Portu-esparrua
- ✓ Intermodalitatea

➤ **AZPIEGITUREN ERABILERA EGOKIA**

- ✓ Inbertsioen errentagarritasuna
- ✓ Kudeaketa eraginkorra
- ✓ Mantentze-lanak
- ✓ Espezializazioa

➤ **AUTOSUFIZIENTZIA EKONOMIKOA**

- ✓ Diru-sarrerak – Gastuak
- ✓ Kostuen egitura
- ✓ Errentagarritasuna
- ✓ Inbertsioa/zorpeketa

➤ **INGURUNEAN INTEGRATZEA**

- ✓ Ingurumena
- ✓ Babesa eta segurtasuna
- ✓ Portuaren eta hiriaren arteko harremanak
- ✓ Portuaren irudia

➤ **OPERAZIOEN BIKAINTRASUNA**

- ✓ Prozesuak - Fidagarritasuna
- ✓ Zerbitzuen kalitatea
- ✓ Prezio lehiakorrak

PParen xedea helburu estrategikoen bidez garatzen da.

PERSPEKTIBA EKONOMIKOA.

- E1 Negozio-kopurua handitzea.
- E2 Errentagarritasun egokia lortzea.
- E3 Azpiegiturei errentagarritasuna ateratzea.
- E4 Baliabide gehigarriak sortzea, kanpo-portua finantzatzeko.

BALIABIDEEN PERSPEKTIBA.

- R1 Erakundea estrategiarantz bideratzea eta bezeroei bideratutako aldaketa kulturala sustatzea.
- R2 Kudeaketa-sistemak garatzea eta modernizatzea.
- R3 Giza talde motibatua eta konprometitua lortzea.
- R4 Pertsonen trebetasunak strategiara egokitzea.
- R5 Eragile ekonomiko eta sozial garrantzitsuekin harremanak kudeatzea.

PParen XEDEA: IRAUNKORTASUNA KONTUAN HARTUTA, INGURUNeko JARDUERA SOZIO-EKONOMIKOA GARATZEA ETA SENDOTZEA. HORRETARAKO, ZERBITZU LOGISTIKOAK SUSTATZEA ETA PORTUKO AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK GARATZEA.

PROZESUEN PERSPEKTIBA.

- P1 Kanpo-portuaren eta bertako sare, zerbitzu eta sarbideen garapena kudeatzea.
- P2 Kalitate-, segurtasun- eta ingurumen-arloko sistemen ezarpenean bikainak izatea.
- P3 Kanpoko inbertsioa bultzatzea.
- P4 Jarduerak kanpo-portura eramateko plangintza egokia egitea.
- P5 Portuaren irudia sustatzea.
- P6 Azpiegituren eta instalazioen kudeaketan, garapenean eta mantentze-lanetan bikainak izatea.
- P7 Berrikuntza- eta garapen-arloko politikak garatzea.
- P8 Ekonomiaren eraginkortasuna hobetzea.
- P9 Portuan eta inguruan, jarduera logistikoak eta SVA garatzea.
- P10 Ingurunekeo lurralde-antolamendurako eskeman proaktiboak izatea.

BEZEROEN PERSPEKTIBA.


- C1 Gaur egungo bezeroen leialtasuna lortzea.
- C2 Trafiko berriak erakartzea (esaterako, SSS).
- C3 Zerbitzugintzan bikainak izatea.
- C4 Prezio lehiakorak edukitzea.
- C5 Portuko esparruan iraunkortasun-politikak ezartzea.
- C6 Ingurunearen eragina kudeatzea.
- C7 Hirugarrenekin itun estrategikoetarako politikak ezartzea.

Helburu eragileak PParen helburu estrategikoen eta AMIA faktoreen arteko elkarreraginaren ondorioz sortzen dira.

- Helburu estrategikoen eta AMIA faktoreen arteko elkarreraginaren ondorioz, helburu eragileak edo ekintza-lerroak lortzen dira, eta, horien bidez, Pasaiako portuaren indarrak eta aukerak “ustiatzen” dira eta bere ahuleziak eta mehatxuak “zuzentzen” dira. Horrela, helburu eragileak eta helburu estrategikoak lotzean, Pasaiako Portuko Agintaritzaren helburu estrategikoak lortzeko egin beharreko ekintzak ageria-agerian egongo dira.
- Beraz, kontzeptu hauek bereiziko ditugu:
 - Aginte Taula Integraleko **helburu estrategikoak**: lehen ikusi dugunez, PParen xedea zehazten dute.
 - **AMIA faktoreak**: batetik, ahuleziak eta mehatxuak; eta bestetik, indarrak eta aukerak. Guztiak Pasaiako Portuko Agintaritzari buruz egindako diagnostikoaren ondorioak izango dira.
 - **Proposatutako helburu eragileak**: helburu estrategikoen eta AMIA faktoreen arteko elkarreraginaren ondorioz sortzen dira, eta, loturapeko helburu estrategikoak lortzeko asmoz, AMIA faktore bakoitzean egin beharreko ekintzak dira.

Helburu eragileetan, Pasaiaiko portuko barne- eta kanpo-kudeaketako arlo guztiak hartzen dira kontuan.

- Portuko azpiegitura berriak. Kanpo-portuaren garapena.
- Portuko gaur egungo azpiegituren erabilera egokia.
- Portuko zerbitzuen erabilera egokia eta produktibitatearen gorakada.




- Pasaiaiko badia oso-osorik biziberritzea.
- Ingurune sozio-ekonomikoa.

- Jarduera logistikoak eta intermodalitatea garatzea.

- PPAren kudeaketa hobetzea.
- Gaur egungo trafikoak sustatzea eta jarduerak dibertsifikatzea.
- Itun estrategikoetarako politikak ezartzea.
- Autosufizientzia ekonomikoa.

Pasaia Portuko Ekintza Planaren kronograma generikoaren aurrerapena.

ARLO ERAGILEAK	EPE LABURRA 2008 - 2012	EPE ERTAINA 2013 - 2020	EPE LUZEA 2020 eta hurrengoak
Portuko jarduerak	<ul style="list-style-type: none"> .- Nabalaldea irekitzea .- Prozedura-fasea .- Kanpoko ditzoko lehen harria: 2012/X/1 .- Kanpo-portua eraikitzeko proiektuak 	<ul style="list-style-type: none"> .- Sarbideak, tunelak, lotunea .- Kanpo-portuaren eraikuntza 	<ul style="list-style-type: none"> .- Kanpo-ditxoa zerbitzuan sartzea
Irisgarritasuna, intermodalitatea eta zerbitzu logistikoak	<ul style="list-style-type: none"> .- Errepide-sarbideko lehen harria: 2010/X/1 .- ZALen bideragarritasun-azterketa 	<ul style="list-style-type: none"> .- Jaizkibiako barnebidetako zerbitzu logistikoen gunea .- Portuko/logistikako eremua sendotzea - Autoen siloa - Herrerako hegoaldea. Industrialde berria - Capuchinos. Zolatak, biltegiak - Kaietako pabilioiak 	
PPAren funtzionamendua	Gaur egungo kudeaketaren jarraipena		
Harremana ingurune eta iraunkortasunarekin	<ul style="list-style-type: none"> .- Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa .- Hirigintza-espedienteak bideratzea .- Barruko ditzoko portu-jardueraren ingurumen-jarraipenerako programa .- Lurrak desafektatzea, Jaizkibiak hirigintza biziberritzeko prozesuari ekiteko - Herrerako iparraldea - Lezo 	<ul style="list-style-type: none"> .- Eraikuntza-obren ingurumen-jarraipenerako programa .- Hirigintza biziberritzea (Herrerako iparraldea eta Lezo) 	<ul style="list-style-type: none"> .- Pasaia badi oso-osorik biziberritzea

Jarduketa-arloen azalpena.

**Portuko
jarduerak**

**1. JARDUERA-ARLOA:
PORTUKO AZPIEGITURA BERRIAK. KANPO-PORTUAREN GARAPENA.**

1.1 Plan estrategikoa eta zuzentzailea eta beren ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea.

1.2 Kanpo-portuaren aurreproiektua eta proiektua egitea.

1.3 Laborategian, kanpo-portuari buruzko saiakera fisikoak garatzea.

1.4 Kanpo-porturako instalazio, sare eta zerbitzuen aurreproiektua egitea.

1.5 Desjabetzen oinarrizko proiektua prestatzea.

1.6 Kanpo-portuko Aurreproiektuaren Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Azterketa egitea eta bideratzea. DIA lortzea.

1.7 Kanpo-porturako instalazio, sare eta zerbitzuen eraikuntza-proiektua egitea.

1.8 Pasaia kanpo-portuaren PUEPren Unean Uneko Aldaketa egitea eta bideratzea.

1.9 Kanpo Portuaren Proiektuan adierazitako dragaketa eta isurietarako baimenak bideratzea.

Jarduera-arloen azalpena.

**1. JARDUERA-ARLOA:
PORTUKO AZPIEGITURA BERRIAK. KANPO-PORTUAREN GARAPENA.**

1.10 Azterketa ekonomiko eta finantzarioa. Negozio Plana.

1.11 Finantziarioa bilatzea. BEIrekin eta/edo beste kreditu-erakunde batzuekin negoziatzea.

1.12 Europako fondoak eskatzeko agiriak sortzea.

1.13 Azpiegitura berriak finantzatzeko baliabide gehigarriak sortzea.

1.14 Obra eskaintzeko eta esleitzeko lehiaketaren orria egitea eta onartzea. Obra-zuzendaritzarako eta proiektuaren garapenerako laguntza-taldeak diseinatzea.

1.15 Proiektuaren jarraipena egiteko batzordea sortzea eta kanpo-porturako errepide bidezko sarbidea eraikitzea.

1.16 ADIFen eta Portuko Agintaritzaren arteko hitzarmena onartzea, kanpo-porturako tren bidezko sarbideen garapenaren jarraipena egiteko. Tren bidezko sarbideei buruzko azterketa egitea.

1.17 Kanpo-portura egokitutako zerbitzuak aztertzea eta dimentsionatzea.

1.18 Kanpo-portuan balizak jartzeko proposamena egitea eta bideratzea.

1.19 Kanpo Portuko Larrialdietarako Plana eta Itsasontziak eta Portu Instalazioak Babesteko Plana.

1.20 Instalazio Berriak Merkaturatzeko Plana.

Jarduera-arloen azalpena.

**2. JARDUERA-ARLOA:
PORTUKO GAUR EGUNGO AZPIEGITUREN ERABILERA EGOKIA.**

2.1 Merkantzien txandaketa hobetzeko azterketa egitea.

2.2 Gaur egungo emakidak berrantolatzea: inbentarioa, Jarraipen eta Kontrol Plana.

2.3 Portuko Instalazioen Mantentze-lanen Plana garatzea.

**3. JARDUERA-ARLOA :
PORTUKO ZERBITZUEN ERABILERA EGOKIA ETA PRODUKTIBITATEAREN GORAKADA.**

3.1 Portuko oinarrizko zerbitzuetako zehaztapen partikularren orriak onartzea: atrakalekuetako lanak, atoaia, praktikajea eta hondakinen bilketa.

3.2 Hirugarrenek emandako zerbitzuen kalitatearen eta ingurumena babesteko eskakizunen jarraipena egiteko sistematika ezartzea.

3.3 Portuko bertako zerbitzuak hobetzea eta ahalik eta era egokienean erabiltzea.

Jarduera-arloen azalpena.

**Irisgarritasuna,
intermodalitatea eta
zerbitzu logistikoak**

4. JARDUERA-ARLOA: JARDUERA LOGISTIKOAK ETA INTERMODALITEA GARATZEA.

4.1 ZALen eta portuarekin lotutako alternatiben bideragarritasun-azterketa egitea.

4.2 Portu Lehorren Sarean sartzea.

4.3 SSS linea berriak sortzea, portua bera jatorria/helmuga izanda.

**PPAren
funtzionamendua**

5. JARDUERA-ARLOA: PPAren KUDEAKETA HOBETZEA.

5.1 Informazioaren Teknologien eta Zerbitzu eta Sistema Informatikoen Plan Integrala.

5.2 Langileentzako esparru estrategikoa ezartzea, eta, bertan, langileak kanpo-portuaren premia berrietara egokitzeko plana garatzea.

Jarduera-arloen azalpena.

**6. JARDUERA-ARLOA:
GAUR EGUNGO TRAFIKOAK SUSTATZEA ETA JARDUERAK DIBERTSIFIKATZEA.**

6.1 Trafiko berriak erakartzeko jarduera-programa berezia.

6.2 Portua automobilgintzako nazioarteko plataforma logistiko moduan sustatzea.

6.3 Gaur egungo beste trafiko batzuk sendotzeko eta sustatzeko plana.

6.4 Instalazio nautikoen eta jolas-instalazioen plana.

6.5 Itsas bidaia turistikoen trafikoak eta kirol-itsasontzi handien joan-etorriak erakartzeko programa egitea.

6.6 Instalazio nautikoen eta kirol-instalazioen plana.

6.7 Arrantzarekin lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak garatzeko programa.

**7. JARDUERA-ARLOA:
ITUN ESTRATEGIKOETARAKO POLITIKAK EZARTZEA.**

7.1 Estatuko eta nazioarteko beste portu batzuekin itunak eta lankidetzak-hitzarmenak ezartzea.

7.2 Estatuko zein nazioarteko enpresa-itunak sustatzea.

Jarduera-arloen azalpena.

**8. JARDUERA-ARLOA:
AUTOSUFIZIENTZIA EKONOMIKOA.**

8.1 Portuko zerbitzu-eremuaren balioespena berriro aztertzea.

**Ingurune eta
iraunkortasunarekiko
lotura**

**9. JARDUERA-ARLOA:
PASAIKO BADIA OSO-OSORIK BIZIBERRITZEA.**

9.1 Indarreko PUEP onartzean sortutako desafekzioak bideratzea.

9.2 Pasaia Portuaren Plan Berezia egitea eta bideratzea.

9.3 Lursailak desafektatzea, Jaizkibiak egin beharreko hiri-biziberritzea garatu ahal izateko.

9.4 Pasaia Portuko Eremuak Erabiltzeko Plan berria egitea eta bideratzea.

9.2 Ingurumenaren Errespetua eta Iraunkortasuna Sustatzeko Plana.

**10. JARDUERA-ARLOA:
INGURUNE SOZIO-EKONOMIKOA.**

10.1 Portuaren eta hiriaren arteko harremanak hobetzeko jarduerak diseinatzea.

10.2 Portuak ingurunean duen eragin sozio-ekonomikoari buruzko azterketa egitea.

10.3 Komunikazio- eta irudi-arloko estrategia diseinatzea eta ezartzea.

Helburu eragile bakoitzak lotura zuzena du helburu estrategiko bakar batekin.

- Ondoren, helburu eragileen eta helburu estrategikoen arteko lotura azaltzen da. Bertan, hain zuzen ere, helburu eragile bakoitzak lotura **zuzena** du helburu estrategiko bakar batekin (○ sinboloaz adierazita); eta beste zenbaitekin, lotura induzitua (X sinboloaz adierazita).
- Aldi berean, matrize horretan, 1etik 3ra sailkatu da helburu eragile bakoitzak duen garrantzia, honako irizpide hauen arabera:
 - 1. garrantziko helburu eragileak: proiektu hauek Portuko Agintaritzako sail askotan dute eragina, inbertsio handia egin behar da eta lidergo-maila gorenean daude (zuzendaritza).
 - 2. garrantziko helburu eragileak: proiektu hauek zenbait sailetan dute eragina, aurrekoek baino baliabide gutxiago behar dituzte eta lidergoa bigarren mailakoa da.
 - 3. garrantziko helburu eragileak: proiektu hauek sail bakar batean dute eragina, eta zuzendaritzaren inplikazio zuzena oso txikia da.

PASAIAKO PORTUAREN IKUSPEGIKO HELBURU ESTRATEGIKO ETA HELBURU ERAGILEEN ARTEKO BATERATASUN-MATRIZEA		HELBURU ESTRATEGIKO ETA HELBURU ERAGILEEN ARTEKO BATERATASUN-MATRIZEA																											
		GARRANTZI-MAILA																											
HELBURU ERAGILEAK		E1	E2	E3	E4	C1	C2	C3	C4	C5	C6	C7	P1	P2	P3	P4	P5	P6	P7	P8	P9	P10	R1	R2	R3	R4	R5		
PORTUKO AZPIEGITURA BERRIAK KANPO-PORTUAREN GARAPENA																													
PORTUKO ZERBITZUEN ERABILERA EGOKIA ETA EMANKORTASUNAREN GORAKADA																													
3.1	Portuko oinarriko zerbitzuetako zehaztapen partikularren orriak onartzea: amarralekuetako lanak, atoiak, praktikajek eta hondakin biltzetan	2																											
3.2	Hirugarren emandako zerbitzuen kalitatearen eta ingurumena babesteko eskakizunen jarraipena egiteko sistematika ezartzea	2																											
3.3	Portuko bertako zerbitzuak hobetzea eta ahalik eta era egokienean erabiltzea	2																											
JARDUERA LOGISTIKOAK ETA INTERMODALITATEA GARATZEA																													
4.1	ZALen eta portuarekin lotutako alternatiben bideragarritasun-azterketa egitea	1																											
4.2	Portu Lehorren Sarean sartzea	1																											
4.3	SSS linea berriak sortzea, portua bera jatorria/helmuga izanda	1																											
PPAren KUDEAKETA HOBETZEA																													
5.1	Informazioaren Teknologien eta Zerbitzu zein Sistema Informatikoen Plan Integrala	3																											
5.2	Langileentzako esparru estrategikoa ezartzea, eta, bertan, langileak kanpo-portuaren premia berrietara egokitzeko plana garatzea	3																											
GAUR EGUNGO TRAFIKOAK SUSTATZEA ETA JARDUERAK DIBERTSIFIKATZEA																													
6.1	Trafiko berriak erakartzeko jarduerak-programa berezia	2																											
6.2	Portua automobilgintzako nazioarteko plataforma logistikoko moduan sustatzea	2																											
6.3	Gaur egungo beste trafiko batzuk sendotzeko eta sustatzeko plana	2																											
6.4	Itsas bidaiak turistikoan trafikoak eta kirol-itsasontzi handien joan-etorriak erakartzeko programa egitea	2																											
6.5	Instalazio nautikoan eta kirol-instalazioen plana	2																											
6.6	Arrantzarekin lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak garatzeko programa	2																											
ITUN ESTRATEGIKOETARAKO POLITIKAK EZARTZEA																													
7.1	Estatuko eta nazioarteko beste portu batzuekin itunak eta lankidetzak-bitzarmenak ezartzea	1																											
7.2	Estatuko zein nazioarteko enpresa-itunak sustatzea	1																											
BURUASKITASUN EKONOMIKOA																													
8.1	Portuko zerbitzu-eremuaren balioespina berriro aztertzea	1																											
PASAIAKO BADIA OSO-OSORIK BIZIBERRITZEA																													
9.1	Indarreko PUEP onartzean sortutako desafekzioak bideratzea	1																											
9.2	Pasaiaiko Portuaren Plan Berezia egitea eta bideratzea	1																											
9.3	Lursailak desafektatzea, Jaizkibiak egin beharreko hiri-biziberritzea garatu ahal izateko																												
9.4	Pasaiaiko Portuko Ereduak Erabiltzeko Plan berria egitea eta bideratzea																												
9.5	Ingurumenaren Errespetua eta Iraunkortasuna Sustatzeko Plana	1																											
INGURUNE SOZIO-EKONOMIKOA																													
10.1	Portuaren eta hiriaren arteko harremanak hobetzeko jarduerak diseinatzea	1																											
10.2	Portuak ingurunean duen eragin sozio-ekonomikoari buruzko azterketa egitea	1																											
10.3	Komunikazio eta irudi arloko estrategia diseinatzea eta ezartzea	1																											

Lerro estrategikoen eta helburu eragileen arteko lotura.

LERRO ESTRATEGIKOA: HAZKUNTZA

**PORTUKO AZPIEGITURA BERRIAK.
KANPO-PORTUAREN GARAPENA**

- 1.1 Plan estrategikoa eta zuzentzailea eta beren ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea
- 1.2 Kanpo-portuaren aurreproiektua eta proiektua egitea
- 1.3 Laborategian, kanpo-portuari buruzko saiakera fisikoak garatzea
- 1.4 Kanpo-porturako instalazio, sare eta zerbitzuen aurreproiektua egitea
- 1.5 Desjabetzen oinarriko proiektua prestatzea
- 1.6 Kanpo-portuaren Aurreproiektuaren Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Azterketa egitea eta bideratzea. DIA lortzea.
- 1.7 Kanpo-porturako instalazio, sare eta zerbitzuen eraikuntza-proiektua egitea
- 1.8 Pasaia kanpo-portuaren PUEPren unean uneko aldaketa egitea eta bideratzea
- 1.9 Kanpo-portuaren proiektuan adierazitako dragaketa eta isurietarako baimenak bideratzea
- 1.10 Azterketa ekonomiko eta finantzarioa. Negozio Plana
- 1.11 Finantziarioa bilatzea. BEIrekin eta/edo beste kreditu-erakunde batzuekin negoziatzea
- 1.12 Europako fondoak eskatzeko agiriak sortzea
- 1.13 Azpiegitura berriak finantzatzeko baliabide gehigarriak sortzea
- 1.14 Obra eskaintzeko eta esleitzeko lehiaketaren orria egitea eta onartzea. Obra-zuzendaritzarako eta proiektuaren garapenerako laguntza-taldeak diseinatzea
- 1.15 Proiektuaren jarraipena egiteko batzordea sortzea eta kanpo-porturako errepide bidezko sarbidea eraikitzea
- 1.16 ADIFen eta Portuko Agintaritzaren arteko hitzarmena onartzea, kanpo-porturako tren bidezko sarbideen garapenaren jarraipena egiteko. Tren bidezko sarbideei buruzko azterketa egitea
- 1.17 Kanpo-portura egokitutako zerbitzuak aztertzea eta dimentsionatzea
- 1.18 Kanpo-portuan balizak jartzeko proposamena egitea eta bideratzea
- 1.19 Kanpo Portuko Larraldietarako Plana eta Itsasontziak eta Portu Instalazioak Babesteko Plana
- 1.20 Instalazio Berriak Merkaturatzeko Plana

LERRO ESTRATEGIKOA: HAZKUNTZA

JARDUERA LOGISTIKOAK ETA INTERMODALITATEA GARATZEA

- 4.1 ZALen eta portuarekin lotutako alternatiben bideragarritasun-azterketa egitea
- 4.2 Portu Lehorren Sarean sartzea
- 4.3 SSS linea berriak sortzea, portua bera jatorria/helmuga izanda

**GAUR EGUNGO TRAFIKOAK SUSTATZEA ETA
JARDUERAK DIBERTSIFIKATZEA**

- 6.1 Trafiko berriak erakartzeko jarduera-programa berezia
- 6.2 Portua automobilgintzako nazioarteko plataforma logistiko moduan sustatzea
- 6.3 Gaur egungo beste trafiko batzuk sendotzeko eta sustatzeko plana
- 6.4 Itsas bidaia turistikoaren trafikoak eta kirol-itsasontzi handien joan-etorriak erakartzeko programa egitea

Lerro estrategikoen eta helburu eragileen arteko lotura.

LERRO ESTRATEGIKOA: BIKAINASUN ERAGILEA

PORTUKO ZERBITZUEN ERABILERA EGOKIA ETA EMANKORTASUNAREN GORAKADA

- 2.1 Merkantzien txandakatzea hobetzeko azterketa egitea
- 3.1 Portuko oinarriko zerbitzuetako zehaztapen partikularren orriak onartzea: amarralekuetako lanak, atoia, praktikajea eta hondakinen bilketa
- 3.2 Hirugarrenek emandako zerbitzuen kalitatearen eta ingurumena babesteko eskakizunen jarraipena egiteko sistematika ezartzea
- 3.3 Portuko bertako zerbitzuak hobetzea eta ahalik eta era egokienean erabiltzea

PPAren KUDEAKETA HOBETZEA

- 5.1 Informazioaren Teknologien eta Zerbitzu zein Sistema Informatikoen Plan Integrala
- 5.2 Langileentzako esparru estrategikoa ezartzea, eta, bertan, langileak kanpo-portuaren premia berrietara egokitzeko plana garatzea

ITUN ESTRATEGIKOETARAKO POLITIKAK EZARTZEA

- 7.1 Estatuko eta nazioarteko beste portu batzuekin itunak eta lankidetzak-hitzarmenak ezartzea
- 7.2 Estatuko zein nazioarteko enpresa-itunak sustatzea

LERRO ESTRATEGIKOA: AZPIEGITUREN ERABILERA EGOKIA

PORTUKO GAUR EGUNGO AZPIEGITUREN ERABILERA EGOKIA

- 2.3 Portuko Instalazio Guztiak Artatzeko Plana garatzea
- 6.5 Instalazio nautikoen eta kirol-instalazioen plana
- 6.6 Arrantzarekin lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak garatzeko programa

LERRO ESTRATEGIKOA: BIKAINASUN ERAGILEA

PORTUKO GAUR EGUNGO AZPIEGITUREN ERABILERA EGOKIA

- 2.2 Gaur egungo komntzesioak berrantolatzea: inbentarioa, Jarraipen eta Kontrol Plana

BURUASKITASUN EKONOMIKOA

- 8.1 Portuko zerbitzu-eremuaren balioespena berriro aztertzea

LERRO ESTRATEGIKOA: INGURUNEAREKIKO INTEGRAGAZIOA

PASAIKO BADIA OSO-OSORIK BIZIBERRITZEA

- 9.1 Indarreko PUEP onartzean sortutako desafekzioak bideratzea
- 9.2 Pasaiako Portuaren Plan Berezia egitea eta bideratzea
- 9.3 Lursailak desafektatzea, Jaizkibiak egin beharreko hiri-biziberritzea garatu ahal izateko
- 9.4 Pasaiako Portuko Eremuak Erabiltzeko Plan berria egitea eta bideratzea
- 9.5 Ingurumenaren Errespetua eta Iraunkortasuna Sustatzeko Plana

INGURUNE SOZIO-EKONOMIKOA

- 10.1 Portuaren eta hiriaren arteko harremanak hobetzeko jarduerak diseinatzea
- 10.2 Portuak ingurunean duen eragin sozio-ekonomikoari buruzko azterketa egitea
- 10.3 Komunikazio- eta irudi-arloko estrategia diseinatzea eta ezartzea